

BERGARA MONUMENTALA

Atsegin bezain harrigarri suertatzen da Bergarako hirigune historikoa bisitatzea. Algodonera edo Union Cerrajera bezalako enpresa handiek Bergara, neurri handi batean, industriarekin lotzea ekarri dute. Ez dugu ahaztu behar munduko galtza bakero famatuenen kolorea Bergarako urdina dela. Bisitariak horregatik, ez du espero “aire zabaleko museo” batekin topo egitea, estilo arkitektoniko ugariko eraikin berezi eta bikainez osatutako multzo batekin, alegia. Italiar arkitekturek, Europaren erdialdekoak, barroko sebillarrak, euskal gotikoak... bere horretan eta bizirik jarraitzen dute kale hauetan, XVI-XVIII. mendeetako arte europarraren erakusketa errepika-ezina eskainiz. Hortaz, ez da harritzekoa Eusko Jaurilaritzak Monumentu Multzo Historiko izendatu izana 2003an.

Kostaldea eta Gasteiz lotzen dituen bidean kokatua, Bergara Erdi Aroan hiribidu kategoria bereganatzen duen puntu estrategikoetako bat da, botere politiko eta judiciali propioa duena, alegia. 1050. urtean, Ariznoa inpean, izango dugu gure herriari buruzko lehen aipamena. Garai hartan Gabiria eta Ozaeta leinuek gorpuzten dituzte Nafarroako erresumarekiko harremanak. Harreman horiek, baina, etenda geratuko dira, dela konkistagatik, dela gizarteko buruek Gaztelako erregearekin sortutako elkarlanarengatik. Horrela Ariznoako San Pedro Villanueva de Bergara bihurtuko da 1268tik aurrera.

XV. mendean aro berri bat abiatzen da Bergarako historian. Eliteak ezin hobeto egokituko dira eskenatoki ekonomiko, kultural eta politikoko berrietara. Europako gudetan edo Amerikako kolonizazioan parte hartuko dute eta familia boteretsuenek euren izena eta etxea etorkizunerako uzteko lehian jardungo dute. Bisitariari dagokio bakoitzaren emaitza baloratzea.


Ondoren, eta Errege Mintegiari esker, Bergara Ilustrazioari, Pedagogiari eta nazioarte mailako ikerketari lotuta agertuko zaigu. Gainera Euskal Herriko historiaren gune erreferentzialak ere baditugu bere kaleetan zehar, Bergarako Besarkada gauzatu zenekoa edo Olaso dorrea, kasu.

Laster atzemango dugu mendeen joan-etorrian Bergarak erakutsitako bizitasuna. Jauregi handiak belauandiz belaualdi aberastuta eta apainduta agertzen zaizkigu, jatorrizko fatxada eta oinplanoak ezkutaturik dituztela.

Eta horien aldamenean, berriz, horrenbeste eraldatu ez diren, eta aldi berean xumeagoak diruditen beste zenbait etxe eta jauregi ikusiko ditugu. Hiriko orube eta eraikinak eten gabe berrerabili dira baina, hala ere, eraikinok ez dute euren gaitasun orotarazlea galdu, eta begien aurrean jartzten dizkigute garai bakoitzean nabarmendu diren ezaugarriak. Izan ere, Bergarako ondare historiko artistikoa Euskal Herriko baliosuenetakoa da.

Udaletxea dagoen plazatik abiaturik, hiriaren alde zaharreanan zehar kalez kale ibiliz, Bergarako historia eta monumentu multzoaz gozatzeko bi ibilbide proposatzen dizkiegu bisitariei. Elementu esanguratsuenak bakoitzaren kokalekuan argi eta garbi seinaltuak daude, bertan informazio zehatza eskaintzen delarik. Horrek aukera eskaintzen du ibilbide jakin bat jarraitu gabe ere bisitatu eta ezagutzeko.

Udaletxe aurrean egindako lehen geldialdiak **1** XVII. mendean berritutako eraikin baten aurrean kokatzen gaitu. Eraikina bera eta baita plaza ere, herritarrak elkarteko eta ospakizunetarako gune garrantzitsu bilakatu ziren. Fatxada argizatzea, suak piztea edo dantza egitea izaten ziren ospakizunotako ohiko ekintzak. Ekintza hauez gain, arkupeek bestelako betekizun praktikoagoak izan dituzte, esaterako azoka-lekua izatea eta horrekin lotuta, alondegi edo biltegi izatea. Arkupeetako zutabeetan grabatuta geratu dira garai batzuetan erabilitako zenbait neurri zahar eta patroi.


 Udaletxeko arkupeetako zutabeetan grabatuta dauden neurri-ereduak. 1- Teila, 2- Adreilua, 3- Baldosa, 4- Kana, 5- Balantza, 6- Kana bikoitza.

Hemendik aurrera kaleetan zehar indarberritzeko eta erosketak egiteko toki dezente aurkituko dugu. Famatuak dira, adibidez, oraindik ere bertako gozok modu tradizionalean ekoinzen dituzten gozotegiak. Horietakoren bat bisitatu eta XVIII. mendetik ezagunak diren bizkotxak, Bergarako erreilenoak, edo XIX. mendearen amaierako Tostoiak probatu ahal izango ditugu. Ez dago ezer hoberik bisita atsegin hau goxatzeko.

► 1. Ibilbidea: Ilustrazioa, zientzia, hezkuntza eta berrikuntza


Udaletxeko plaza izango da ibilbide honen abiapuntua **1**. Herriko erdigune honek badu bereizgarri bat. Izan ere, herri gehienetan ohikoa da protagonismoa udaletxea-eliza bikoteak hartzea; Bergaran ordea, egikera eta edertasun bikaineko beste eraikin bat dugu udaletxearen parez pare: Errege Mintegia, hain zuzen ere **[A]** **2**. XVIII eta XIX. mendeetako giro ilustratu eta zientifikoan hemen gauzatu ziren ikerkuntza eta hezkuntza lanek Errege Mintegia aparteko erakunde bilakatu zuten eta hainbat bisitariren erakargune izan zen.

Wolframioa (W) 1783an Bergaran aurkitu zuten Fausto eta Juan Jose Elhuyar anaiek. Mundu mailan sona handiko aurkikuntza izan zen, eta gainera, Seminarioak sustatzen zuen irakaskuntza eta ikerketa lanen garaipen gisa har daiteke. Wolframioa aski ezaguna da, izan ere, beroaren aurrean duen erresistentzia ezinbestekoa izan da gaur egun etxeetan erabiltzen ditugun bonbillen funtzionamendurako. Era berean, Bigarren Mundu Gerran ere garrantzi handia izan zuen metal horrek eta gaur egungo industria modernoan ere erabat baliagarria izaten jarraitzen du blindajeetan, soldatze lanetan edo makina-erreminta arloan, esaterako. Elhuyar anaien aurkikuntza aitzakia bikaina da Bergarako kaleetan zehar murgiltzeko. Bertan, hiriaren garapenaren eta aldaketa kulturalen lekukoak diren eraikin monumentalak deskubritu ahal izango dira.

Ibilbidea hasteko Elhuyar anaien laborategirantz joko dugu, Seminarioa atzean utzita, Bidekurutzeta kaletik barrena Jauregi eta Ondartza jauretxeen tartetik **3** , **4** . Ingurune honetan irudimena erabili eta atzera egitea ez da lan nekeza, XVIII. mendeko Ilustrazio garaiko ikasle giroa irudika daiteke: jakintsu arripistatuak, ikasle tunanteak, ileorde eta guzti apain asko jantzitako patrizio arrenditsuak...

Ondartza Jauregiak hainbat garaitako elementuak biltzen ditu, izan ere, etxaurreko bi arku zorrotzak barroko estiloko teilatu-hegalaren oso aurrekoak dira. Balaiteke Ondartza familiako kideek elementu arkitektoniko horiek Jauregiko aukozideekiko norgehiagokan eraiki izana, izan ere, Jauregi etxean, Europa erdialdeko eragin nabarmena duen behe-erliebe txundigarria dugu. Ariketa polita da bertan ezkutatzen diren irudiak bilatzea.

Aurreratxoago, Munibe plaza dugu: alde batean, 1718ko matxinaden ondoren berreraiki zuten **Moiua-Barrena jauregia** (Rocaverdeko markesgora atxikia) du **6** eta bestean Iturritxo etxea **5** .


 Fausto eta Juan Jose Elhuyar, wolframioaren aurkitzaileak.


Plazak Ilustrazioko kide esanguratsuenetako bati zor dio izena: Peñaflorida Kondeari. Munibe, besteak beste, Euskalerriko Adiskidenen Elkarteko sortzailea eta Bergarako udaletxen aurkeztutako “El Borracho Burlado” operaren egilea izan zen. Eta horrekin batera, XVIII. mendeko matxinadetan altxatu zirenei aurre egiten ere lehen lerroan aritu zen. Matxinadez ari garela, nabaria da Ilustratuek eta jende xumeek ez zutela garaiko krisi-egoeraren gaineko ikuspegi bera. Lehenegoko Seminarioan edota euren elkarteetan bilatu nahi zuten euren interesen araberako irtenbidea; matxinadek, aldiz, argi erakusten dute herritar xumeek ez zituztela ilustratuen programen onurak antzematen.

Jatorrizko hiribilduaren esparrutik kanpo gaude jada, Ilustrazioko Bergara osatzen zuten kanpoaldeko auzoetako batean, alegia. Bertako paneletan informazioa bildu ondoren **[B]** eta **[C]** , ibilbideari jarraiki, Ikerleku kantoian dagoen panelera **[D]** iritsiko gara, Elhuyar anaien aurkikuntzaren inguruko jakin-nahia asetzeko. Bidean, eskuin aldean frontoia ikus dezakegu. Hor jardungo zuten pilotan Bergarako Ilustrazioko garaikideak, Peñaflorida barne.

Erdi Aroko kutsua duten kale-kantoi batzuk igarota Bidekurutzetara iritsiko gara. Kale hau jarduera komertzialei lotuta egon izan da beti, ondoan dagoen San Pedro kalea bezalaxe. Bi kaleek bat egiten duten zabalgune honetan, Bidekurutzeta plazan hain zuzen, azoka entzutetsua izaten zen garai batean **7**. **Inguruan XVII. mendeko fatxadak** ikus ditzakegu, Ilustrazio garaiko merkatarien arrakastaren lekuko. Hemendik 200 metro eskasera **Mariaren Lagundiak** emakumezkoen hezkuntzarako XVIII. mendearen amaieran jasotako eraikin handia ikus daitezke **8** , Bergarak jakintzaren munduarekin zuen lotura indartzera etorri zena.

Herriko gozotegi sonatu eta ospetsu baten aurrean gaude eta San Pedro kalean gora eginez gero ospe handiko beste gozotegi baten atarira iritsiko gara. Ibilbidean zehar ikusi ahal izango dugu etxe modernoetan antzinako elementu arkitektonikoak nola txertatu dituzten **9** . Azken batean, etxe horiek arkitektura herrikoiaren isla dira, jauregiak eta jauntxoen etxetzarrak kopiatzeko saiakeraren fruitu, alegia. Jakina, haien diseinua jarraitzen saiatzen badira ere, ezinezkoa zaie eraikin originalen kalitatea eta dekorazioa berdintzea.

Kalearen amaieran, edo hobeto esanda, hasieran, **Azkarate-Marutegi jauregia** dugu **10** , hiri arkitektura zibilaren beste adibide bikainetako bat. Aipagarria da etxe-kantalean ageri duen balkoi landua. Baina baditu beste bitxi harrigarri batzuk ere, jauregiaren aurrealdean ikus daitezkeen zeramika esmaltatuak, alegia. Baldosok, hasiera batean, gezurra badirudi ere, estufa batean muntatzeko sortu ziren.



Azkarategi-Marutegi jauregiko berogailu-plakak.

Aurrez aurre dugun plaza Bergarako beste leku adierazgarri bat dugu: jatorrizko boteregunea. Bertan ditugu, alde batetik, **San Pedroko Eliza** **11** eta, bestetik, euskal familia nabarmenenetako baten oinetxea: **jatorrian Olaso** familiarena eta gerora Monzondarena izandakoa **12** . Oinetxe honetan jaio ziren Miguel Jose de Olaso, XVIII. mendean Euskalerriaren Adiskidenen Elkarteko idazkari betierekoa; Telesforo Monzon Zurbano, XIX. mendeko Seminarioko zuzendari izana, edo bere ahaide Telesforo Monzón Ortiz de Urruela, euskal nazionalismoaren pertsonaia ezaguna. XIX. mendean urteko alkatetza-aldia familia horri egokitzen zitzaionean udalbatzarrak ez ziren udaletxean egiten, familiaren dorretxean baizik. Erdi Arotik gaur egungo joera politikoetarainoko ibiliaren lekuko zuzena izan da, beraz, eraikin hau.



Bergara. Thomas Lyde Hoornbrook, c. 1839. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Toki hau bikaina da Elizari begira geratzeko. Parean duen plazak, merezimendu osoz, darama Ariznoa izen zaharra. Jakina da eliza beste tenplu baten gainean eraikita dagoela, alegia XIII. mendeko San Pedro Ariznoakoaren gainean. Horrek adierazten digu XV. menderako herriak garapen eta hazkunde nabaria zuela. Dorrea Jose Lizardiren gidaritzapean eraiki zen 1742an.

Gaur egungo plaza, ekialderuntz doan Mizpildi kalea eta mendebalderuntz doan Komenio kalea hiriak lehenengo karlistadako estualdien ondoren bideratu zituen erreforma urbanistikoen parte dira. Lehenengo karlistada hari Bergarako Besarkadak eman zion amaiera 1839an.

Gerra aro haren ondoren Bergara bisitarien aurrean irudi irekia eta berritzailea eskaintzen saiatu zen. Ahalegin horretan oinarritzko izango zen 1866an abiatu zen erreforma urbanistikoa. Erreforma horren zutabe nagusietako bat izango zen San Pedro parrokiaren aurrean sortu zen espazio publiko berria. Bertan **harategi eta arraindegi berriak** **13** eta **eskola-epaitegia-kartzela multzoa** **14** eraiki ziren, eta guztiaren erdian, epaitegiaren gailurrean, Martzial Agirre bergararrak Erroman zizelkatu zuen Doña Justaren estatua, Justiziaren alegoria, kokatu zen.

Epaitegietatik gertu egotea aitzakia paregabea da herriaren izaera politikoaren berri jasotzeko, Bergara baita auzitegi-barrutiko buru. Leku hau, halaber, gertakari historiko bat gogoratzeko aitzakia ere bada, 1897an epaitegitik gertu garrotean hil baitzuten Michelle Angiolillo anarkista italiarra **[E]**. Angiolillok Espainiako Gobernuo Presidente Canovas del Castillo hil zuen Arrasateko bainuetxean zela, Bartzelonan bere kideek jasandako tortura eta exekuzioei erantzunez.

San Pedroko elizaren atzealdean dagoen **Errekalde Jauregiak**, **15** bere XIX. mendeko lorategi eta guzti, hiribildua beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera ematen du. Peñaflorida kondeak gozatu zuen berberetik, hain zuzen ere, jauregi bikain honetan bizi izan baitzen hil arte.

Errekalde Jauregiko parkea bisitatu ondoren, Komenio kalea zeharkatuko dugu. Tarte honetan, **Zuhaitz Apartekoa** **16** izendapena duen magnolia erraldoiaren ondok pasatzean, kale hau irekitzean eman ziren aldatekak antzemango ditugu, besteak beste: baratzeen eta lorategi handien ordez, lorategi txikiak; Ondartza dorrearen hegoaldean, berriz, dorrearen beraren antzinako egurrezko pasabideak gogorarazten dituen eta burdinazko egitura interesgarria duen eranskina.

Horrela, udaletxeko plazara iritsiko gara berriro.

► 2. Ibilbidea. Hiru kaleak

Ibilbide hau ere **Udaletxeko plazatik** **1** abiatzen da. Hegoalderantz hartuz gero, tokiko boterearen beste bi adierazle ageri dira, familien indarrean oinarritutako boterearena: **Jauregi eta Ondartza etxeak** ditugu (**3** eta **4**). Familia urbanoaren eta maiorazkoaren ereduaren arakastaren lekuko dira. Familia jabetzak ez dira zati berdinetan banatuko; horren ordez, etxeko nagusiak oinordeko bakarra aukeratuko du, hain zuzen, familiaren izena eta haren ondasunak zaintzeko eta jabetzak eta erentak handitzeko aukera gehien eskaintzen duen kidea. Oinordekotza mota horren ondorioz, errenta eta ondasunak gero eta ahaltsuagoak izango diren eta elkarren artean uztartuko diren familia batzuetan metatuko dira, guztia Estatu aurreko eredu politikoaren babespean. Ondartza Kontuzaina da horren adibide nabarmenetako bat eta erregearen kolaboratzaile gisa izan zuen arrakastak arrasto nabaria utzi du herrian, esaterako, bere jauregia edota Trinitateko Komentuaren berreraikitzea.

San Pedro elizarantz doazen eskailerak igota Erdi Aroko hiribilduaren erdigunera helduko gara. Bertan **Olaso dorreak** **12** eta **San Pedro elizak** **11** osatzen duten multzoa ageri da. Jatorrizko dorrea etengabe izan da egokitua eta aberastua eta ez litzateke gehiegikeria haren eduki batzuk altxorrak direla esatea. Etxea pertsonaia garrantzitsuen sorleku izan da eta gaur egun, Jakiunde, Zientzia, Arte eta Letren Euskal Akademiaren egoitza da.

Udaletxea inguratzea amaitzean, elizpe ondoan, eskubitara egingo dugu bira, Laudantz kale kantoitik gora hartzeko. Bergarako Erdi Aroko jatorrizko oinplanoarekin egingo dugu topo. Hiru kale luze eta paralelo dira, izen ezin adierazgarriagoak dituztenak: Goenkalea, Artekalea eta Barrenkalea.



Bergararen egitura izan zitekeena hasierako urteetan.

Goenkalea Erdi Aroko Bergararen punturik altuenean dago **[F]** eta hemen kokatzen zen hiribildutik tenplurako sarbide nagusia. Gaur egun, ate itsua da, elizako fatxadan dagoen XVI. mendearen hasierako erdi puntuko arku molduradunak gogorarazten digun moduan.

Erdi Aroko hiribilduaren trazadura da, hain zuzen, hirigune historikoaren aztarna garbiena. Denborari hobekien etsusi dion elementua da, ez baita gehiegi aldatu eta hiri garapenez ez baitu deuseztu. Aipatutako hiru kaleen trazaduraz gain, etxe orubeen tamainak ere Erdi Arora garamatza, antzeko tamaina duten partzeletan eraikitzen baitira etxeak eta, ahal den neurrian, baratza edo lorategia izaten baitute.

Etxeek, ordea, eboluzio bat bizi izan dute, eta elementu artistiko, konstruktibo eta aipangarriak gehitu zaizkie, zenbaitzutan jatorrizko eraikinak guztiz ordezkatzen dituztela. Horregatik, Goenkalerako sarrera bereziki interesgarria da, **Erdi Aroko bukaerako arkitektura zibilaren** lekuko zuzena baita **17**.

Hala ere, kale honetako eraikinik ikusgarriena, zalantzarik gabe, **Klarisen Trinitateko Komentua** da **18**. Berau aipatutako eboluzioaren adierazle da. XVI. mendean eraikia, hainbat aldiz handitu izan baitute, gainontzeko orubeen tamaina oinartuekin zerikusirik ez duen espazio zabal bat bete arte.

Komentuaren presentziaren eraginez, kale hau nagusiki etxebizitzatarakoa da. Neurritzko altuera duten etxeek, eraiki gabeko orubeek edota galtzada-harrizko zoladurak itxura bitxi eta sosegu irudi berezia eskaintzen diote.

Goenkalea gurutzatu ondoren **Artekalera** iritsiko gara, tarteko kalea edo erdiko kalea izan zen garai bateko hiriaren gunera. Erdi Aroko kale nagusia izan zen honetatik pasatzen zen Bergara gurutzatzen zuen errege bidea. Hemen jaio eta bizi izan zen Domingo Martínez Irala 1515eko suteak Bergara kiskali zuen arte. Irala Río de la Platako gobernadore izatera iritsi zen eta baita Paraguaien sortzaile ere. Kale honetako bizilagunak badirudi, Aro Modernoan batik bat, jabe txikiak zirela eta artisautzan oinarritzen zutela beraien egunerokoa. Arkitektura herrikoia da nagusi kale honetako etxeetan, nahiz eta kalean aurrera egin ahala zenbait sorpresa aurki daitezkeen, esaterako **etxe errenazentista** bat **19** edo Olaso dorreak, Elizak eta Udaletxeak sortzen duten plazatxoa.

Berriro ere udaletxeko plazara heldu eta eskuin aldera bira eginik, **Barrenkale**ra iritsiko gara. Bertan ikusiko dugu hiriko jauretxeen sorta bikaina, etxe hauek eraiki zituzten familien bizitza maila altuaren eta arrakastaren erakusgarri ederra. Eta gaur egun oraindik jarraitzen dute beraien papera betez, bertan azaltzen baitigute nortzuk izan ziren sortzaile eta zein izan zen euren ohorea.

Plazatik bertatik ikus dezakegu lehen jauregia. **Izagirre-Moia** **20** izena du eta bere jatorri irmoa modu apalean ezkutatuz plazara eta bertako ospakizunetara dotore agertzen da. Fernando VII.ena eta María Josefa Amalia errege-erreginak etxean hartzeko, begiratokia eraiki zioten etxeari 1828an. Gure begirada hartuko duen hurrengo etxea **Aroztegi Jauregia** da **21**. Aurrealde serio eta orekatua duen arren, bizidun, begetal eta munstroak batzen dituen egurrezko taila bitxi bat dauka ate eta kontroleihoetan barna. Barrenkaleko 25ean, **Sequera** izeneko **etxea** **22** dugu. XVII. mendeko eraikin eredugarria da eta aipagarria da jabeak eraikitzailearekin sinatu zuen kontratuan idatzirik utzi zuela kalitate ona eta modernitatea zaintzeko asmo zehatza. Geroz, gainera, jabeak eraikitzailea auzitara eraman zuen itundutako kalitateari jaramonik ez egitea egotzita.


 Aroztegi jauregiko atearen xehetasuna.

Bigarren etxadiaren hasieran dago **Arrese Jauregia** **23**, Gipuzkoako, edo zergatik ez, Euskal Herriko fatxadarik interesgarrienetako eta originalenetakoa duena, izkina egiten duen balkoi errenazentista eta guzti. Handik gertu, **Irizar edo Urrutia-Espilla** **24** dago, urteetan zehar egindako mantenuagatik nabarmentzeko moduko XVII. mendeko lorategia daukana. Jauregi honetan izenpetu zen Bergarako Besarkada, lehen karlistadari amaiera eman ziona, jauregiaren atarian dagoen oroirgarriak azaltzen digu legez.

Kalearen amaieran **Egino-Mallea Jauregiaren** **25** etxaurre errenazentista eredugarriak harritu egingo gaitu, eta, era berean, aukera emango digu familiak, Gaztelako Koroarekin zuen harreman-sarearen eraginez, izandako gorakadaz jabetzeko. Pareko kalean, berriz, gaurdaino iritsi ez den Arrurriaga dorrea zegoen. Eta apur bat beherago hortxe dirau **Zuloaga-Bereterio Jauregiak** **26** .

Hemendik aurrera hainbat aukera dauzkagu. Adibidez, **Irizar jauregiko ataria** **24** bisitatu eta ondoren **Errotalde Jauregi** **27** bikaina ezagutu genezake, gero ibilbidearen hasierara Arrurriagako errebaletik eta **Loiola etxetik** **28** itzultzeko. Edo, bestela, jatorrizko hirigunearen kanpoaldera egin genezake, Barrenkaleko etxeen ostera, garai batean baratzeak, hiriaren hornikuntzarako lurrak, zeuden tokira. Gaur egun espazio publiko bilakatuta daude eta bertan gera gaitzeke indarrak hartzen, ibilbidearekin aurrera jarraitu aurretik.

Deba ibaia Fraiskozuritik, Bergarako Besarkadaren kokalekua izan zen parajetik, igarota, **Santa Marina elizaren** **29** soiltasuna -eliza honen bisitak erabat harrtuko gaitu- edo **Laureaga Jauregia** **30** ikus ditzakegu.



Bergarako Besarkada, Zumalakarregi Museoa. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Badira Bergarako hiriguneko jauregi arkitektura osatzera datozen beste zenbait monumentu etxe, hirigunearen kanpo aldean daudenak eta guztiak ere familien pilaketa dinamikari lotuak direnak. Horietakoak dira **Moiua** **31**, **Ozaeta** **32** edo **Gabiria dorretxea** **33** , azken biak ibaiaren zaindariak. Azken bi hauek, hirigunetik bereizi xamar, harresiari zeharka begiritzen diotela, hiribilduak euren baimenaz edo akaso euren gogoz kontra aurrera egin zuela gogorarazten digute.


Dorre hauetaz gozatzeko Bergarako ibilbide berdea hartu dezakegu (SL Gi-38), eta hala, bide batez, **Agirreko Garaia** **34** ere ezagut dezakegu, Gipuzkoan mantentzen den garai bakarra, XVI. mendeko lehen erdialdean eraikia.

1. Ibilbidea: Ilustrazioa, zientzia, hezkuntza eta berrikuntza

2. Ibilbidea: Hiru kaleak

- 1 Udaletxea. XVII-XVIII. mendeak.
- 2 Bergarako Errege Seminarioa. XVII. eta XIX. mendeak.
- 3 Ondartza dorrea. XVI. mendea.
- 4 Jauregi etxea. XVI. mendea.
- 5 Iturritxo etxea. XVI. mendea.
- 6 Moiuia-Barrena jauregia. XVII. eta XVIII. mendeak.
- 7 Hiribilduko etxeak (Bidekurutzeta 26 eta 28). XVII. mendea.
- 8 Mariaren Lagundia ikastetxea. XVIII. mende bukaera.
- 9 XVI. mendeko arku.
- 10 Azkarate-Marutegi etxea. XVI. mendea.
- 11 Ariznoako San Pedro parrokia. XV., XVI., XVIII. mendeak.
- 12 Oloso dorrea. XVI. mendea.
- 13 Antzinako Harategia- Arraindegia. XIX. mendea.
- 14 Eraikin multzoa: Eskolak- Epaitegia- Kartzela. XIX. mendea.
- 15 Errekalde jauregia eta lorategia. XVI-XIX. mendeak.
- 16 Magnolia (*Magnolia grandiflora*), Zuhaitz Aparteko izendatua.

- 17 Erdi Aroko fatxada. XV. mendea.
- 18 Trinitateko monasterioa. XVI-XVIII. mendeak.
- 19 Errenazimenduko fatxada. XVI. mendea.
- 20 Izagirre-Moia jauregia. XV. eta XVIII. mendeak.
- 21 Aroztegi etxea. XVI. mendea.
- 22 Sequera etxea. XVII-XVIII. mendeak.
- 23 Arrese etxea. XVI. mendea.
- 24 Irizar (edo Urrutia-Espilla) jauregia eta lorategia. XVII. mendea.
- 25 Egiño-Mallea jauregia. XVI. mendea.
- 26 Zuloaga-Bereterio etxea. XVII. mendea.
- 27 Errotalde jauregia. XVII. mendea.
- 28 Loiola etxea. XVII. mendea.
- 29 Oxirondoko Santa Marina parrokia. XVI., XVII., XVIII. mendeak.
- 30 Laureaga jauregia. XVI. mendea.
- 31 Moiuia dorrea. XVIII. mendea.
- 32 Ozaeta jauregia. XVI. mendea.
- 33 Gabiria dorrea. XV., XVI. eta XVII. mendeak.
- 34 Agirreko garaia. XVI. mendea.



BERGARAK GEHIAGO ESKANTZEN DIZU!
Bisita gidatuak, bidezidor sareak, spa/bainuetzak etab.!!

Sendersmoa
- FR-GI-94: Tumuluen Xenda
- SL-GI-38 Bergarako Gertxo Berdearen Bira
943 777 095
www.agorrosin.net

Spa
- Agorrosingo ekintza gunea
943 777 095
www.agorrosin.net

Jaiak
- Arotzek, Hartzairen Ibilaldia eta Sorgin-dantza.
- Erramu Zapaluko Fera
- Fentekoste Jaiak (Bergarako jai nagusiak)
- San Martzialgo erromeria
- San Martzialgo Jaiak
- Irtailak 16
- Elosko Gaudu Fera
- Urtiak 12

Telefono interesgarriak
- SOS deiak 112
- Osasun Zentroa 943 035 400
- Udaltzaintza 943 779 106
- Ertzaintza 943 534 720
- PCSA autobusak hirartekoak 902 101 210
- Taxi getokia 943 761 950
- Liburutegia 943 779 162

Tradizioko artisau-gozaia: Erreleioak eta Tostoiak
- Larraaga: San Pedro, 9 943 761 051
- Mujika: Arteka, 3 943 761 034
- Anduri Landeketa: Ubera auzoa, 13 943 777 050
www.nekatur.net
- Artznoa Hotela: Teleforo Aranzadi, 3 943 761 846
artznahotela@euskalnet.net
- Lamanoa-Etxeberri Nekazal Turismoa (San Martzial) 943 763 506
www.nekatur.net
- Ormazabal Hotela: Barrenkale, 11 943 763 650
www.gratisweb.com/hotelormazabal
www.gratisweb.com/hotelormazabal
ormazabalderebas@infoegoctio.com
San Martzial Agirre Plaza, 1 20570 Bergara. Tel.: 943 77 91 28
www.bergara.net
tursmoa@bergara.net
Informazio gehiago: **Bergarako Turismo Bulegoa**

BERGARA MONUMENTALA

Ideen Hiribildua

Bergarako Udala

EUSKADI

Burdutze eta diseinua: ISLADA 637 937 861